

PINUDIKO APARKALEKUKO ERABILTZAILEEN BALDINTZA, ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA.

I.- AURKEZPENA.

Irungo Udalbatza Txit Gorenak, 2006ko uztailaren 26an eginiko osoko bilkuran, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PUBLICA DE VIVIENDA DE IRUN SAU-ri (aurrerantzean IRUNVI) esleitu zion, Pinudi Parkea esparruaren Barne Erreformatarako Plan Bereziaren araberrako L.K. lursailaren zorupearen gaineko kontzesio administratiboa bertan Lurpeko Aparkalekuaren Ekipamendua eraiki eta ustiatzeko.

Kontzesioaren iraupena 75 urtekoa izango da, Irungo Udal Txit Gorenaren eta IRUNVIren artean kontratu administratiboa sinatzen denetik aurrera kontatuta, eta 2081eko irailaren 21ean bukatuko da kontzesio hori.

Arestian aipaturiko Kontratu Administratiboak xedaturikoaren arabera, lurpeko aparkaleku plazen erabileraren zesia "Irungo Udala/IRUNVIren Pinudi parkeko garaje plazen eskatzaileen Erregistroaren funtzionamendurako Oinarrien" arabera egingo da, "IRUNVI"ren Administrazio Kontseiluak 2005eko abenduaren 20ko bileran onartuak horiek, eta 2006ko abenduaren 28ko eta 2007ko martxoaren 1eko Kontseiluetan aldatuak.

Aparkaleku plazak esleitzeko prozesua hasi ondoren, komenigarritzat hartu da aparkaleku hori erabiltzeko baldintzen ildoak, nahiz plazen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dituen araudia onartzea. Arau horiek, Irungo Udalak emaniko kontzesio administratiboaren baldintzen, eta aplikatu beharreko toki erregimeneko legeriaren eta kontratazio administratiboaren mende egongo dira uneoro, eta "Irungo Udala/IRUNVIren Pinudi parkeko garaje plazen eskatzaileen Erregistroaren funtzionamendurako Oinarriak" osatuko dituzte.

1. Helburua.

Araudi honek, Irungo Pinudi Parkeko Lurpeko Ekipamendu eta Aparkalekuaren ustiapenerako kontzesio administratiboaren erabiltzaileek

Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.

bete beharko dituzten baldintzak eta izango dituzten eskubide eta betebeharrak zehaztea du xede.

2.- Erregimen juridikoa.

Irungo Udalak emaniko kontzesio administratiboaren baldintzen, eta aplikatu beharreko toki erregimeneko legeriaren eta kontratazio administratiboaren mende egongo da araudi hau; eta "Irungo Udala/IRUNVIren Pinudi parkeko garaje plazen eskatzaileen Erregistroaren funtzionamendurako Oinarriak" osatuko ditu.

3. Kontzesioaren titularra eta aparkaleku plazen erabiltzaileak.

Araudi honen ondorioetarako, IRUNVI izango da aparkaleku plazen ustiapenerako kontzesioaren titularra.

Era berean, Araudi honen ondorioetarako, aparkaleku plazen erabiltzaileak izango dira zeregin horretarako aurrera eramaniko prozeduren ondoren plazen esleipendun suertatu diren pertsona fisiko eta juridikoak, eta eskualdatzea onartzen den pertsona fisiko edo juridikoak.

4. Indarrean egoteko epea.

2081eko irailak 21 arte egongo da indarrean kontzesio demaniala.

Plazen jatorrizko erabiltzaileek uko egiteagatik edo eskualdatzeengatik IRUNVIk egingo dituen erabilera zesio berriak lehen aipaturiko data hori bitarte geratzen den denboran egongo dira indarrean.

5. Aparkalekuko zerbitzuak eta mantentze jarraibideak.

1. Plazen erabiltzaileek errespetatu egingo dituzte lurpeko aparkalekuen erabilera eta mantenuari begira aplikatu beharreko legezko arauak, IRUNVIk emaniko aginduak zehaztutako estandarrak eta kalitateak mantentzeko, eta egon litezkeen udal zirkularrak mantentzeko

Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.

jarraibideekin, aparkalekuak udal jabari publikoko ondasun izaera duela kontuan izanik.

2. Aparkalekua mantendu eta hobetzeko obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa, eta Administrazioarena, IRUNVIk eramango du aurrera. Ondorio horietarako, artikulua honen hirugarren atalean zehazten direnak izango dira oinarrizko zerbitzu eta hornidurak. Zerbitzu eta hornidura osagarriak 5. artikulua honen laugarren atalean jasotakoak izango dira kasu guztietan, eta 9. artikuluan arauturikoa izango da aparkalekuko Administrazio zerbitzua.

3. Aparkalekua eta haren instalazioak mantentzeko ondoko oinarrizko zerbitzu eta hornidura hauek emango dira, eta IRUNVIk jarduera horiek berrikusiko ditu aldian behin:

Edateko uraren banaketa sarea, saneamendu sarea, suteen aurka babesteko instalazioa, instalazio elektrikoa, ponpaketa instalazioa, beharturiko aireztapen sistema, aparkalekura ibilgailuak sartzeko ateak, oinezkoak sartzeko ateak, dauden igotzeko tresnak, igogailuak, eskailera-igogailuak, oinezkoentzako sarbideak, aparkalekuko pintura, ibilgailuen gurpildunentzako gunea, aparkalekuko garbiketa orokorra, aparkaleku barneko seinaleak, aparkalekuko hargin lana oro har, eta aseguruak.

Administratzaileak erregistratuko ditu aparkalekuaren mantenurako eginiko lanak.

4. Aparkaleku zerbitzuak ez darama berekin, inolaz ere, ibilgailuen eta haien barnean dauden gauzen zaintze edo gordetze zerbitzua.

Plazen Erabiltzaileen Komunitateak zerbitzu eta hornidura osagarriak kontratatzea proposatu ahal izango dio IRUNVIri, segurtasun zerbitzua, telebista zirkuitu itxia, lapurreten aseguru... esate baterako, gehiengo absolutua ados badago. Zerbitzu eta hornidura horiek Komunitatearen kargura izango dira eta IRUNVIk onartu beharko ditu kontratatatu aurretik.

Ondorio horietarako, IRUNVIk ohartarazten du, ondasunaren eta zerbitzuaren titular gisa kontrataturik dituen erantzukizun zibilaren aseguruak eta kalteen ondare aseguruak babesten ez dituen arrisku eta kalteengatik kalte-ordainak eman behar baditu, ordainketa horrek

Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.

proportzionalki eragina izango duela esleituriko plazen erabiltzaile guztien artean.

Ibilgailuen artean sorturiko arrisku eta kalteak ukiturikoen aseguru partikularren esku geratuko dira.

5. Oinarrizko zerbitzu eta hornidurek nahiz ezartzen diren zerbitzu eta hornidura osagarriek eragindako gastuak aparkalekuaren administratzaileak proposaturiko maiztasunaz eskatuko zaizkie plazen erabiltzaileei.

6. Erabiltzaileen eskubideak.

Honako eskubide hauek izango dituzte erabiltzaileek:

1. Aparkalekuan sartzeko giltzak eta urrutiko kontrolak edukitzeko.
2. Esleituriko plaza kontzesioa indarrean dagoen epe osoan izaera pribatibo eta eskusibitatez erabiltzeko.
3. Udal aparkalekuak dituen elementu komunak eta instalazioak erabiltzeko IRUNVIk zehaztutako baldintzetan.
4. Aparkalekuan aplikatu beharreko araudia, eta administrazio liburu eta kontuak edukitzeko.
5. Administratzaileari edo IRUNVIri, IRUNVIren babes juridikoari kexak aurkezteko, bere titular izaera errespetatzen dadin, bere eskubidearen erabileraren jardun arrunta nahasiko duen zernahi ekidin edo geldiaraziz.
6. Aparkalekuaren funtzionamenduan agindutako aldaketan eta IRUNVIren arabera egin beharreko obren berri izateko.

7. Erabiltzaileen betebeharrak.

Honako betebeharrak izango dituzte plazen erabiltzaileek:

1. Zuzenean erabiliko dute esleituriko plaza, eta ezin izango dute, inolaz ere, alokairuan eman edo hirugarrenen esku utzi.

2. Adierazitako ibilgailua esleituriko espazioaren barnean aparkatuko dute, lapurreten aurkako segurtasun neurri arruntak harturik, esate baterako, atek eta leihoak itxi eta agerian ezer ere ez utzi.

3. Autoko argi laburrak piztuta ibiliko dira aparkalekuaren barnean.

4. Aparkalekuaren barnean dauden seinale bertikalak eta horizontalak errespetatuko dituzte, eta baita edozein zirkulazio arau ere.

5. Aparkalekuan sartzeko edo handik ateratzeko erabilitako oinezkoentzako atek itxiko dituzte, eta irteteko edo sartzeko atea, kasuan kasukoa, erabat itxi arte itzarongo dute.

6. Administratzaileari edo IRUNViri hilabete bateko epean emango diote ibilgailu edo etxebizitza aldaketan berri.

7. Helbideratu egingo dute hileko mantenu kuotaren ordainketa, inbertsioen eragin kotaren ordainketa, horrelakorik badago, eta aparkaleku plazaren titularitateak berekin daramatzen udal zerga eta tasen ordainketa.

8. Honako hauetatik etorritako kopuruak ordainduko dituzte:

a) Aparkalekuaren mantenuak eta jasotako zerbitzuek plaza bakoitzean eragindako gastuak.

b) IRUNVIk eginiko hobekuntza eta handitze obrek plaza bakoitzean eragindako gastuak, obra horien gauzatze eta finantzazio erabakian aurreikusitako baldintzetan.

c) Bai plaza partikularrak, bai aparkalekuak, oro har, eragindako tasa eta zergak.

Erabiltzaileak ez baditu gutxienez mantentze gastuen bi kuota, edo obren gastuak, ordaintzen, IRUNVIk erabileraren zesia iraungitzat eman ahal izango du epea bukatu aurretik.

9. IRUNViri aukera emango dio edozein unetan plazen erabileraren ikuskapen eta kontrol zuzena egiteko, eta bere egitekoak aurrera eramateko administratzaileak edo IRUNVIk titularra den plazaren inguruan eskaturiko dokumentazio guztia emango dio.

10. Funtzionamendu, garbitasun eta segurtasun egoera bikainean eduki, erabili eta mantenduko dituzte beti eraikuntza eta instalazioak.

8. Plazen eskualdatzea.

1. Aparkaleku plazen erabiltzaileek IRUNViri aurkeztuko dizkiote baja, ordezkatzeko eta eskualdatze eskaerak, Elkarteak hori egiaztatu eta esleipen berriak egin ditzan, aparkalekuko betiko itxaron-zerrendaren arau eta lehentasunen arabera.

2. Eskualdatzeen prezioa esleipenaren prezioa zergarik gabe izango da, eta eskualdatze horren eskaera egin den arte igarotako urte eta hilabete osoetan pilaturiko KPI erantsiko zaio. Prezio hori murriztu ahal izango da jadanik aprobetxaturiko urte eta hilabete osoen arabera, IRUNViren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez.

3. Erabiltzaileek IRUNViri plaza ondoko pertsona hauen alde eskualdatzeko eskatu ahal izango diote, itxaron-zerrendara jo gabe, baldin eta pertsona horiek plaza eskuratzeko zehaztutako baldintzak betetzen badituzte:

- Oinordetzaren kasuan, "Irungo Udala/IRUNViren Pinudi parkeko garaje plazen eskatzaileen Erregistroaren funtzionamendurako Oinarrien" 2. eta 3. artikuluetan zehazturiko baldintzak betetzen dituzten oinordekoei zuzenean eskualdatu ahal izango zaie garaje plaza.

4. Plaza berriaren eskatzaileek ez badago, IRUNVIk ez du hura berreskuratzeko betebeharririk izango. Halaz ere, IRUNVIk plaza berreskuratu ahal izango du, erabiltzaileek edozein gorabeherarengatik Oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen ez badituzte, edo uko egitearen arrazoiak behar bezala justifikatzen badira.

Inolaz ere ez da garaje plazaren eskualdatzea lotuko oinordekotzan lortutako etxebizitza edo lokalaren salmenta edo zesioarekin.

9. Administrazioaren inguruan.

IRUNVIk kontratatuko du administratzailea.

Aparkalekuko administratzaileak zerbitzua emateko esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliko ditu IRUNVIren izenean.

Aparkalekuaren esparruaren mugaketa izango da administratzaileak erabiliko duen oinarria aparkalekuaren mantenuaren zerbitzu eta horniduren kontratazioan IRUNVIren izenean eta gertatzen diren erantzukizunen hautematean.

Lehen urtean IRUNVIren kontura izango dira administrazio gastuak, eta hurrengo ekitaldietan Erabiltzaileen Komunitatearen esku geratuko dira.

Honako egiteko hauek izango ditu Administratzaileak:

- Ezarri behar diren aparkalekuko zerbitzuak kontratatuko ditu IRUNVIren izenean.
- Plazen erabilerak kontatuko ditu IRUNVIk zehaztutako maiztasun eta xehetasunez.
- Honako hauek dira aparkalekuaren mantenua administratu eta kontrolatzeko lanak:
 - a) IRUNVIk zehaztutako baliabideekin eta moduan eguneratuak edukitzea zerbitzu hau emateko beharreko datuak Elkarteak emanak honako hauei buruz: deklaraturiko ibilgailuak, plazen erabileraren titularitatea, titularren helbidea, kontu korrontea eta aparkaleku gastuen ordainketa.
 - b) Egin denetik hiru egunetara eta komunikazio sistema gisa Elkarteak zehaztutako formatuan, edozein aldaketaren berri ematea, helbide, ibilgailu, helbideraturiko kontu korronte aldaketak, esate baterako, eta plaza baten uko egitea edo eskualdatzea eskatzen duen titularrak zorrik ez duela adieraztea.

- c) Erabiltzaileen ordezkariak erabilera, mantenu, barne trafiko edo antzekoen inguruko aldaketei buruz eginiko proposamenak IRUNViri jakinaraztea.
- d) Erabiltzaileei jakinarazi, kontrolatu eta eskatu aparkalekua jarduera lizentzian eta aparkalekuko eraikuntza eta zerbitzuen inguruko berariazko xedapen legeletan zehaztutako baldintzetan mantentzeko obligazioa bete behar dutela, eta komeni delako edo beharra dagoelako IRUNVIk mantentze obrak edo inbertsio obrak egiteko erabakia hartu duela jakinaraztea.
- e) IRUNViri proposatzea erabiltzaileen ordezkariak proposaturiko azpiegitura inbertsio obrak egin ditzan.
- f) Aparkalekuaren inguruko administrazio, kontabilitate eta diruzaintza lanak bere gain hartu eta gauzatzea, eta IRUNViri eta erabiltzaileei horien berri ematea (mantentze eta aseguru kontratuak berritu eta eguneratzeko proposamena, deialdiak, ordezkarien bilerak, bileretan ldazkari lana egitea, urteko kontuen berri ematea).
- g) Erabiltzaileen eskaerak, kexak, erreklamazioak eta iradokizunak jasotzea, erabiltzaileen gatazkei arreta ematea eta, hala behar badu, IRUNViri bidaltzea beharreko erantzuna emateko.
- h) IRUNViri jakinaraztea aparkalekuaren erabileran erabiltzaileek egindako obligazio eta arauen ez-betetzeak, plazen erabilera eskubidearen kausa direnean.
- i) Banku helbideratzeen bidez eskatu eta kontrolatzea plazen erabilera titularrek, eta hutsik dauden plazei dagokienean IRUNVIk, ordaindu beharreko hileko gastuen ordainketa, zehaztutako kopuruan eta aparkalekuan ezarritako zerbitzuen arabera.

Mantentze eta inbertsio gastuak obra bakoitzerako zehaztutako modu eta epean ordainduko dira.

- j) Hileko gastuak ez badira ordaintzen, administratzaileak haiek kobratzeko eta, hala behar badu, plazaren erabilera eskubidea bertan behera uzteko eskatu ahal izango dio IRUNViri.

- k) Erabiltzaileei beharreko informazioa ematea eta zehaztutako eskubide eta betebeharrak erabil ditzaten eskatzea.
- l) IRUNVIren aurrean eta erabiltzaileen ordezkarien aurrean esku hartzea erabiltzaileekin egon daitezkeen gatazkak konpontzen saiatzeko udal neurriak hartu aurretik.
- m) Zerbitzu hau udal arau eta ebazpenetan aurreikusitakoaren arabera bideratu behar dela eta erabiltzaileek aparkalekuaren erabileran arau eta xedapen horiek errespetatzea, beren gain hartzea eta betearaztea.
- n) Kontzesioa indarrean dagoen bitartean, eta beti ere indarrean egoteko epea amaitu aurretik, aparkalekuko administratzaileak esku hartuko du egin diren eta plazen titularrek kitatu gabe edo ordaindu gabe dituzten azpiegitura obren berri emateko, eta obra horiek zein diren eta eskubideen zesioa egin behar duten titularrek zein kopuru ordaindu behar dituzten eta aparkalekuko etorkizuneko erabiltzaileentzako zein geratzen diren jakinaraziko du.
- o) Kontzesioa indarrean egoteko zehazturiko epea amaitu aurretik, aparkalekuko administratzaileak plazen titularrek kitatu edo ordaindu gabe dituzten kontu egoeren berri emango du eta horiek kitatuko ditu, beren eskubideen zesioa egiten duten titularrei ordainketa horiek eskatzeko legezko prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

Bereziki esku hartuko du egin diren eta plazen titularrek kitatu gabe edo ordaindu gabe dituzten azpiegitura obren inguruko informazioa emateko, beren eskubideen zesioa egiten duten titularrei ordainketa horiek eskatzeko legezko prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

- p) Aparkalekuko kanpoko azalera ez bada behar bezala erabiltzen eta aparkalekuan hondamenak gertatzen badira, IRUNVIri jakinaraztea dagokion prozedura has dezan.

10. Erabiltzaileen eskubideak administratzailearen lanari dagokionean.

Aparkalekuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte administratzailearen aurrean:

1. Urteko kontuen berri izateko, horietan ordaindu beharreko hileko kuotaren zenbatekoa justifikaturik.
2. Kexak, erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.
3. Bezeroei erantzuteko telefonoa edukitzeko aparkaleku plazaren erabilera zailtasunak daudenean hartara deitu ahal izateko.
4. Aparkalekuaren erabilera arruntean eragina duen edo aldaketaren bat sortzen duen edozein gertakizunen berri izateko.
5. Erabiltzaileen Komunitatearen bilera berezia deitzeko IRUNVIri zerbitzu berriak eman eta handitze edo hobekuntza obrak egin ditzan eskatzeko.
6. IRUNVIren aurrean erabiltzaileen proposamenak tramitzeko mantentze irizpide, erabilera arau, barne trafiko, zerbitzuen prestazio eta antzekoetan aldaketak edo esku hartzeak eskatuz.

11. Erabiltzaileen komunitatea. Estatutuak.

Pinudiko aparkalekuko erabiltzaileek Erabiltzaileen Komunitatea osatu beharko dute, Oinarrien 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Erabiltzaileen Komunitatea IRUNVIk osatuko du, eta komunitate horren Estatutuak onartuko ditu. Estatutu horiek onartu eta berretsiko ditu erabiltzaileak, eta komunero izaerak berekin daramatzan eskubide eta betebeharrak guztiak bere gain hartuko ditu.

Erabiltzaileen Komunitatearen gobernuari araudi hau aplikatuko zaio, eta subsidiarioki, Jabetza Horizontalaren Legearen arauak eta xedapen osagarriak.

Erabiltzaileen Batzar Nagusia, Gobernu organo gisa, erabiltzaile guztiek osatuko dute, eta araudi honen, eta subsidiarioki, Jabetza Horizontalaren Legeak xedaturikoaren arabera deitu eta bilduko da.

Batzar Nagusiak 8 egun lehenago jakinaraziko dizkio IRUNVIri bilera bakoitzaren eguna, ordua eta eguneko gai-zerrenda, eta horietara joan ahal izango da behar bezala ordezkaturik. Nolanahi ere, IRUNVIri hartutako erabakien berri emateko obligazioa du Batzarrak.

Batzar Nagusiak bere kideen artean izendatuko du Lehendakaria, Jabetza Horizontalaren legeak aurreikusitako egiteko eta ahalmenekin, araudi honen eta Komunitatearen Estatutuen aurka ez dagoen guztian.

Aparkalekuko administratzaileak Idazkari lanak egingo ditu gauzatzen diren bileretan. Erabiltzaileen Batzar Nagusi bakoitzaren eta hartutako erabakien akta idatziko da, eta erabiltzaile bakoitzari kopia bana bidaliko zaio. Era berean, Akta Liburuan transkribatuko da, eta haren edukiaren inguruan ziurtagiriak egiteko ahalmena izango du Administratzaileak.

Arau hauek derrigorrezkoak izango dira egungo eta etorkizuneko Erabiltzaileentzako, eta horretarako, aparkaleku plazen eskualdatzeetan, arau hauen edukia beteko du erabiltzaile berriak.

12. Erregimen ekonomikoa.

Bakoitzak bere kuotaren arabera, aparkalekuko gastu arruntak ordaintzen laguntzeko obligazioa dute Erabiltzaile guztiek, eta Erabiltzaileei gastu horiek eskatu ahal izango zaizkie aparkalekua jardunean hasten diren momentu beretik.

Gastu arrunt gisa hartuko dira mantentze langileenak eta Gizarte Segurantza gastuak, horrelakorik baldin badago, instalazioen eta erantzukizun zibilaren aseguru polizen gastuak, garajearen garbiketa eta kontserbazio gastuak, argiteria orokorraren eta sarbide eta makinerien energia gastuak, garajearen eta eremu komunen garbiketa gastuak, tasak, konponketa orokorrak eta abar, eta baita Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera onarturiko beste guztiak ere, hori guztia Obra Berriaren Adierazpenean eta Aparkalekuko Jabetza Horizontalaren Erregimenean zehaztutako parte hartze koefizienteak kontuan harturik.

Edozein arrazoiregatik beren aparkaleku plaza eta eremu komunak erabiltzen ez dituzten erabiltzaileek ere dagokien kuota ordainduko dute mantentze gastuak kitatzeko.

Aparkalekuko obligazio eta gastuei erantzun ahal izateko, Administratzaileak sarreren eta gastuen aurrekontua prestatu eta aurkeztuko dio urtero Batzarrari, eta haren arabera hiruhileko edo seihilekoetan ordainduko dute erabiltzaileek, aldez aurretik, Batzarrak erabakitakoaren arabera, eta fondoan hornidura gisa, zehaztutako kuota. Erabiltzaile guztiek banku erakunde edo aurrezki kutxa batean helbideratua izango dute Batzarrak zehaztutako fondoan horniduraren ordainketa.

12 hilabete iraungo duen ekitaldi ekonomikoa ixten denetik hasi eta 3 hileko epean, Administrazioaileak Batzarrari aurkeztuko dio sarreraren eta gastuen kitapena, eta baita hurrengo ekitaldirako aurrekontua ere.

Administrazioaileak jakinarazi ondoren hogeit eguneko epean ordainduko dira kuotak eta kitapenak, horiek kobratzeko beharreko neurriak hartzeko aukerari kalterik egin gabe; auzibidera jo behar izanez gero, berandutu denak ordaindu beharko ditu sortzen diren gastu guztiak, abokatu, prokuradore, epaiketa eta abarrenak.

13. IRUNVIren Ahalmenak eskuordetzea Araudi honi dagokionean.

IRUNVIren Administrazio Kontseiluak, Araudi honek Elkarteari emaniko ahal bat edo batzuk Erabiltzaileen Komunitatearen esku utzi ahal izango ditu, Jabetza Horizontalaren Legeak Jabekideen Batzarrei ematen dizkien eskumen eta funtzioen barnean daudenean, kontzesio administratiboaren izaera juridiko berezia kontuan harturik beti ere.

Eskuordetze hori edozein unetan baliogabetu ahal izango du IRUNVIk.

14. Arau honen interpretazioa eta aldaketa.

Araudi hau interpretatzeko prerrogatiba izango du IRUNVIk. Era berean, Elkartea horrek, araudia aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiak daudenean, baina Irungo Udalak emaniko kontzesio administratiboaren baldintzak kontuan harturik beti ere, eta baita "Irungo Udala/IRUNVIren Pinudi parkeko garaje plazen eskatzaileen Erregistroaren funtzionamendurako Oinarriak" ere, aplikatu beharreko toki erregimen eta kontratazio administratiborako legeriaz gainera.